

“Pausoak eman ahala joan naiz bidea egiten”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

María Durán Lázaro

Basoetako eta natura inguruneko
ingeniaría



María Durán Lázaro

Valentzia, 1984.

- **Lanbide Heziketan** natura- eta paisaia-baliabideen kudeaketa eta antolaketa ikasi ondoren, baso-ingeniaritza teknikoa egin zuen.
- Iruñean Agrobioteknologia Institutuan lana egin bitartean, **ingeniaritzako gradua** lortzeko masterra egin zuen.
- **Aezkoako goi-mendiko larreetan** egin du tesia.

María Durán Lázarak aitortu duenez, txikitatik zuen gustuko natura, baina ez zeukan arrastorik ere zer bidetatik joko zuen ikasketetan eta lanean. “Mediku edo suhiltzaile izango ote zaren galdetzen dizute, baina ez biologo edo baso-ingeniari; beraz, gaztetan ez nuen erreferenterik. Pausoak eman ahala joan naiz bidea egiten”.

Horren erakusgarri, haren ibilbidea ez da ohikoa izan. Adibidez, institutuko ikasketak amaitu zituenean, ez zuenez batere garbi zer ikasi unibertsitatean, Lanbide Heziketara jotzea erabaki zuen: “Natura-eta paisaia-baliabideen kudeaketa eta antolaketa izeneko ikasketak ikusi nituen, eta, gaur egun, uste osoa dut aukerarik onena izan zela hasteko. Hori egin ondoren ohartu bainintzen zenbat gustatzen zaidan, ez naturan ibiltzea bakarrik, baizik eta ingurunea eta ekosistemak ezagutzea, eta profesionalki ere interesatzen zitzaidala”.

Horrenbestez, baso-ingeniaritza teknika ikastea erabaki zuen. Bukatutakoan, CSICen lan-poltsan izena eman zuen, eta hilabete batzuk geroago Iruñeko Agrobioteknologia Institututik deitu zioten. Hala, Valentziatik Iruñera joan zen, eta ia sei urtez aritu zen kontratu bat bestearekin lotzen. Eta, horretan ari zela, ikerketan aritzeko aukera sortu zitzaion.

“Hala ere, ingeniari teknika titulua nuenez, aurretik masterra egin behar izan nuen, ingeniari teknika gradura egokitzeko. Eta lana egiten nuen bitartean egin nuen; baina benetan izan dut gustuko, asko gozatu dut”, gogoratu du.

Tesia egitera, berriz, Aezkoara joan zen. Master-eta gradu-amaierako lana egiteko, Nafarroako

Unibertsitate Publikoko irakasle batekin jarri zen harremanetan, Rosa María Canals Tresserras, zeinak Aezkoako larreak antolatzeko proiektua egin baitzuen 2008an. “Hortik abiatuta, ikerketa-proiektuak egiten hasi zen, eta haietako bat gramineo baten hedapenari buruzkoa zen: alka belarra (*Brachypodium rupestre*). Haren bidez, lan asko argitaratu ditugu, lurrari, landaretzari eta baita alka belarrak dakarren galera sozioekonomikoari buruz ere. Izan ere, alka belarrak balio nutrizional txarra dauka”.

Horrez gain, frogatu du alka belarraren hedapena eta flora-dibertsitatearen galera ganaduaren eta suaren kudeaketari lotuta daudela: “Aziendarik ez dabilen lekuetan hedatzen da alka belarra. Hortaz, pixkanaka larrea degradatzen joaten da. Ondorioa da ganaduaren kudeaketa egoki bat lagungarria dela kalitate oneko larreak izateko, eta hori onuragarria da ikuspegi sozioekonomikotik. Baina Aezkoa bezain bakartuta dauden lekuetara ere iristen da globalizazioa, eta ganadua galtzeak larreak degradatzea dakar”, azaldu du.

Onartu du ezen, landa-lana eta laborategiko lana oso gustukoak baditu ere, dezente kostatzen zaiola artikuluak idaztea eta horrelakoak egitea. Horregatik, asko eskertu du lantaldearen laguntza: “Tesi bat ez du batek bakarrik egiten”, baieztatu du. Horrez gain, bere arloan emakumeak gutxiengo izaten direla eta, neska gazteei (DBHko 2. eta 4. maila) egiten dutena erakusteko eta haiek bide horretara animatzeko [proiektu batean parte hartu zuela](#) nabarmendu du. [Ecosistemas aldizkarian argitaratu dute proiektua](#), eta garbi esan du guztiz bete zuela eta oso pozgarria izan zitzaiola. ●

